

INFORMAZIO OROKORRA

Tokia: Goierri eskualdea, Gipuzkoa

Lehiaketa Gunea: Idiazabal

Data: 2026ko irailak 19

Hasiera: goizeko 09:00tan

Iraupena.: 8 ordu

Distantzia: +-50km

Desnibela: +-2000m

Taldeak: 2 edo 3 pertsonakoak

Kategoriak: 3 (Emakumezkoak, gizonezkoak, mistoak)



1. AURKEZPENA

2026an GOIERRI RAID-en lehen edizioa ospatuko da, Euskal Herriaren erdigunean kokatuta dagoen Goierri eskualdean.

Raida Idiazabalen hasi eta amaituko da, zein gastronomi munduan oso ezaguna den bertako gazta. Hala ere hau ez da herri honen berezitasun bakarra, eta raidean parte hartuz gero bertako parajeak ezagutzeko aukera izango duzue.

Hasieratik hasiko gara, zer da abentura raid bat?

Mapa baten laguntzaz eta erabateko autonomian, taldeen erresistentzia eta nabegazioa proban jartzen dituen disziplina anitzeko lehiaketa bat da. Taldeen helburua mapan agertzen diren baliza ahalik eta gehienetatik igarotzea da denbora tarte mugatu batean. Horretarako beraien kabuz mugitu beharko dira, kanpoko laguntzarik gabe, ibilgailu motorizatu gabe, korrika eta mendiko bizikletan eta gainera proba bereziak eginez. Piltatutako baliza hauek puntu batzuk dituzte, aurkitzeko zailtasunaren arabera puntu desberdinak eman ditzaketenak eta irabazlea puntu gehien bildu dituen taldea izango da, beti ere denbora muga barruan sartuz.

Estrategia, beraz, oso garrantzitsua da. Talde bakoitzak ibilbidea bere gaitasunetara egokitu behar du, ze sekziori eman garrantzi gehien ahal den eta puntu gehiena pillatzeko lasterketak irauten duen denboran. Horregatik maila fisiko desberdinetako taldeak partu hartu dezakete, talde bakoitzak egiten baitu bere ibilbidea nahi duen erritmoan. Noski puntu gehien lortu nahi dituenak azkarrago joan beharko du, bakoitzak sortzen du bere abentura!!



2. PARTZUERGO NAGUSIA

Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorra edo Partzuergo Nagusia 24,07 kilometro koadroko lurraldea da, Gipuzkoako hegoaldearen zati handi bat hartzen duena.

Bertan, Aizkorri Aratz Parke Naturala kokatzen da eta Pirineoetako gain Euskal Herriko mendirik garaienak daude; horietako zazpi, 1.500 metrotik gorakoak. Ez du berezko balio administratiborik, baina sei herri arduratzen dira lurraldearen administrazioaz:

Idiazabal, Segura, Zegama eta Zerain Gipuzkoan eta Asparrena eta Donemiliaga Araban


Goierri Raida Partzuergo Nagusiko lurretatik igaroko da, natura aldetik aberastasun handiko lurrak dira, beraz parte hartzaile guztiei errespetu handienekin ibiltzeko eskatzen zaie. Itxita dauden atak itxi, ganadua errespetatu, zaborra norberarekin eraman eta orokorrean mendia aurkitu den egoera berdinean utzi.



3. KOKAPENAK ETA INTERES PUNTUAK

Lehiaketa zentrua Idiazabalen egongo da. (Gipuzkoa).

Jarraian, lehiaketarako interesgarriak diren gunek mapan zehaztuta daude.



LEHIAKETA ZENTRUA

Irteera, helmuga, dutxak, amaiarako bazkaria. Idiazabalgo kiroldegian. Bertan egongo da lehiaketa zentruko bulego iraunkorra.

AUTOKARABANA PARKING-a

Kiroldegi aurreko futbol zelaiari

KOTXEEN PARKINGa

Kale Nagusia 25 eta Kale Nagusia 48, aparkaleku haundiak daude.



4. IZEN EMATEAK

Inskripzioak Maiatzaren 9an zabalduko dira.

GOIERRI RAID 2026rako izen emateak Maiatzak 9an irekiko dira, ROCKTHESPORT orrialdearen bidez. Prezio bakarra egongo da parte hartzaile bakoitzeko, 40€.

ABENTURA maila (gehienez 80 talde)

Izen emateak barne hartzen ditu:

- Lasterkariaren poltsa opariek.
- Lasterkari bakoitzarentzako mapa joku bat eta Roadbook-a.
- Asegurua.
- SPORTIDENT kronometraia elektronikoa sistema eta txipak.
- Zoru gogorra eta dutxak.
- Lasterketa amaierako bazkaria eta anoa gunek
- Sariak eta oparien zozketa

5. EGITARAUA

Ordutegiak gutxi gora beherakoak dira, aurrerago zehaztuko dira.

Irailak 18 OSTIRALA

19:00-21:00 Dorsalak jasotzea
 Zoru gogorra egongo da nahi duenarentzako

Irailak 19 LARUNBATA

7:00-8:00 Dorsalak jasotzea
8:30 Briefing-a eta probaren azalpenak
9:00 Lasterketa hasiera GOIERRI RAID 2026
17:00 Helmuga Itxiera GOIERRI RAID 2026
18:00 Afaria Lehiaketa Zentruan eta sari Banaketa



6. KATEGORIAK

EMAKUMEZKOAK:

2 edo 3 emakumez osatutako taldeak.

Gehienezko denbora 8 ordu.

Helmuga itxi aurretik, puntu gehien lortzen dituzten lehenego 3 taldeek sariak edukiko dituzte. Berdinketa kasuan, denbora gutxienean helmugara iritsi denak irabaziko du.

GIZONEZKOAK:

2 edo 3 gizonetako osatutako taldeak.

Gehienezko denbora 8 ordu.

Helmuga itxi aurretik, puntu gehien lortzen dituzten lehenego 3 taldeek sariak edukiko dituzte. Berdinketa kasuan, denbora gutxienean helmugara iritsi denak irabaziko du.

MISTOAK:

2 edo 3 pertonez osatutako taldeak, gutxienez emakume bat eta gizonetako bat duten taldeak,

Gehienezko denbora 8 ordu.

Helmuga itxi aurretik, puntu gehien lortzen dituzten lehenego 3 taldeek sariak edukiko dituzte. Berdinketa kasuan, denbora gutxienean helmugara iritsi denak irabaziko du.

****2 zein 3 pertonez osatutako taldeek kategoria bereko sailkapenean hartuko dute parte, raida hasi duten pertsona denek amaitu beharko dute sailkapenean parte hartzeko***


****Hau da, lasterketa 3 pertonekin hasi duen taldeko 3rak iritsi behar dira, haietako bat erretiratu eta 2k bukatzen badute, sailkapenetik kanpo geratuko dira.***



7. DISZIPLINAK

- **ORIENTAZIOA:** Lasterketako disziplina printzipala kontsidera daiteke, sekzio guztietan aurrera egiteko mapa eta iparrorratzaren laguntza beharko da. Taldean gutxienez nabegatzaile/estratega on bat edukitzea klabea izan daiteke lasterketako denbora ondo kudeatzeko.
- **TREKKING:** Terreno mota askotarikoak aurkituko ditugu, landa eremua, bista ezin hobeak edituzten gailurrak, zona karstikoak, basoak, bidexkak,... Ez da beharrezkoa mendian esperientzia handirik izatea trekking-eko sekzioak egiteko. Etapa hauek erraz moztu ahalko dira, ibilbide osoa egin nahi ez dutenentzat.
- **MTB:** Ibilbidearen %80a pista eta bide zabaletatik egingo, bizikleta sekzio denak ziklableak izango dira MTB-ko aditu bat izan gabe hala ere momentu puntual batzutan bizikleta bultzatu beharko da (habilezia faltagaitik edo aldapa handiegia dagoelako).
- **SOKAK:** Oinarrizko mailako eskalada eta rappel-eko proba bereziak egongo dira. Hauek egitea ez da derrigorrezkoa izango baina proba egiteagaitik dauden puntuak galduko dira egiten ez badira.

8. GUTXI GORA BEHERAKO DISTANTZIAK ETA LASTERKETAKO KROKISA



MTB: +- 30km
Treking: +- 25km



9. ASISTENTZIA ETA TRANSIZIOAK

Asistentzia organizatzaileek emana izango da, baino partzialki.

T1. Trantsizioa: S1 sekzioaren amaiera - trekking lineala eta S2 BTT sekzioaren hasieran.

Lasterketa hasi aurretik, lasterkariak lehiaketa zentrutik T1 gunera (5,5km-ra - 7minutura kotxean) joan beharko dira hurrengoak uztera:

- Taldeko lasterkarien txirinduak.
- **“A” Poltsa**, T1 gunean utzi nahi dugun materialarekin (bizikletako zapatillak, aldatzeko erropa, kaskoa, jana,...)

Organizazioko pertsona bat egongo da T1en, trasteak non utzi eta egon litezkeen dudak argitzeko.

T2 Trantsizioa; S2 sekzioaren amaiera - BTT lineala, S3 sekzioaren hasiera eta amaiera – Trekking zirkularra eta S4 sekzioaren hasiera – BTT Lineala.

Lasterketa aurretik lehiaketa zentruan, T2 gunera eramatea nahi duzuen materialaren **“B” poltsak** jasoko dira. Organizatzaileek eramango dute poltsa hau T2 trantsiziora eta zuen eskura izango duzuen iristen zaretenean.

A eta B poltsak organizatzaileak ekarriko ditu bueltan irteera puntura lasterketa amaieran.

10. KRONOMETRAIA

Sportident* sistema erabiliko da kronometrairako eta ez da tarteko deskargarik egingo lasterketan. Izen ematea egitean pintzaren (txip-aren) eskaera egin dezakezu ez badaukazu.

Si-6, Si-9, Si-10, Si-11 eta SIAC sportident pintza modeloak bakarrik onartuko dira (Denak 50 kontrol baina gehiagorako gaitasunarekin).






11. BEHARREZKO MATERIALA

Derrigorrezko materiala:



TALDEKO:			
	1x	Botikina	Esparadrapua, gasak, bendak, antiinflamatorioak, antiseptikoak,...
	1x	Mugikorra	Itzalia, bateria kargatuta eta PIN-a atzeko aldean idatzita
	1x	Iparrorratza	
PERTSONAKO:			
	1x	Haizetarako xira manga luzea	
	1x	Euritako galtza luzeak	Gomendagarria
	1x	Camelback edo bidoia	Gutxienez 1l-ko edukierarekin
	1x	Motxila	Material dena eramateko lekuarekin




	1x	Buff edo txapela	
	1x	Txilibitua	
	1x	Manta termikoa	

Disziplina bakoitzeko derrigorrezko materiala:

TREKING:



	1x	Praka luzeak (Gomendagarriak)	Batzuetan landaretza altua dagoen lekuak pasa beharko dira eta hankak babestuta eramatea komeni da.
	1x	Bastoiak (Gomendagarriak)	

BTT:

	1x taldeko	Konponketa kit-a	Kamara, puzgailua edo bonbonak, metxak, desmontagarriak, multierraminta
---	---------------	------------------	---



	<p>1x</p>	<p>Bizikleta</p>	
	<p>1x</p>	<p>Bizikletako kaskoa</p>	<p>Bizikletan ibiltzeko homologatua</p>
	<p>1x</p>	<p>Portamapasa BTT (Gomendagarria)</p>	<p>BTT-ko sekzioetan orientazioa errazten du</p>
<p>SOKAK:</p>			
	<p>1x</p>	<p>Homologaturiko arnesa</p>	<p>Eskaladarako homologatua</p>
	<p>1x</p>	<p>Jeisetko gailua</p>	<p>Zortzia, rebersoa, gri-gri</p>
	<p>2x</p>	<p>HMS mosketoia</p>	<p>HMS homologatua, roskarekin</p>


	<p>1x</p>	<p>Eskalada kaskoa</p>	<p>Txirindukoak balioko du.</p>
	<p>1x</p>	<p>Katu oinak (gomendagarriak)</p>	<p>Ez dira derrigorrezkoak baina proba berezia egiten lagunduko dute..</p>

DEBEKATURIKO materiala:

- Komunikazio gailuak (Talkiak, mugikorrak, etc.)
- Nabigatzeko sistema elektronikoak (GPS-ak)



12. KARTOGRAFIA



GOIERRI RAID 2026en erabiliko diren mapak, [Mapant](#) -en oinarritutako kartografia izango dute; gure taldeak berrikusi eta eguneratu dituenak. Mapa hauetan erabilitako sinbologia IOF-en ISMTBOM arautegian oinarrituko da. Trekkin sekzio batean, GOTen (Gipuzkoako Orientazio Taldea) orientazio mapa bat ere erabiliko dugu.



13. ARAUTEGIA

1. Abentura lasterketa edo raid-ak erabateko autonomian egiten dira, hau da, salbuespenen bat ezik, adibidez derrigorrezko pasoren bat markatuta egon daiteke (arriskuarengaitik,...), gainontzeko ibilbide dena markatu gabe egongo da, eta taldeak berak erabaki beharko du nondik ibili maparen laguntzarekin.
2. Lasterketako gehienezko denbora 8 ordukoa izango da irteera ematen denetik.
 - a. 8ordu 0min eta 1segundutik pasatzean, azken sekzioko puntu denak galduko dira.
 - b. 8 ordu 30min eta 1 segundotik aurrera raideko puntu guztiak galduko dira.
3. Kontrol puntu edo balizek (CP), zeinak sekzio bakoitzean maparen laguntzarekin aurkitu behar diren, puntuazio ezberdina izango dute, zailtasun fisiko eta orientazio zailtasunaren arabera.
4. Ez da derrigorrezkoa CP guztietatik pasatzea, ez eta gehienezko denbora betetzeq. Hau da, talde batek 5 ordu ondoren helmugara joatea erabakitzen badu, lasterketa orduan amaituko da eta momentu hortararte lortu dituen puntuekin sailkatuko da.
5. Sailkapena ondorengo kriterioen arabera egingo da:
 - a. Gehienezko denboraren barruan puntu gehien lortu dituen taldea
 - b. Puntukako berdinketa kasuan, denbora gutxienean helmugaratu dena.
6. Talde bakoitzak bere kategorian sailkatu ahal izateko (Emakumezko, gizonezko edo mistoa), lasterketa hasi duten taldekide guztiek amaitu beharko dute eta denek ibilbide berdina eginez, ezingo dute inolako aldaketa edo erreleborik eman/jaso..
7. Taldeko partaide guztiek batera joan behar dute uneoro, proba berezietan izan ezik.

14.ORGANIZATZAILEAK ETA BABESLEAK

ORGANIZATZAILEAK:

Erronka Bila Kirol Kluba
Capra Alpina Raid taldea

BABESLEAK:

Idiazabalgo Udala
GOITUR Goierriko turismo agentzia
GOT Gipuzkoako Orientazio Taldea

